

Martin Ugalde. "Venezuelan idatzi nuena ezagutu behar da nire ulertzeko"

Juan Luis Zabala

Euskaldunon Egunkaria, 1992-05-29: 26.

Hiru liburu aurkeztuko ditu gaur bere jaioterri den Andoain herri gipuzkoarrean Martin Ugalde euskal idazleak. Egileak Venezuelan bizi izan zuen erbesteraldiko 23 urteetan (1946-1969) idatzitakoak dira gaur argitaratuko diren hiru liburuak osatzen dituzten testuak. Urigain Kultur Etxeko areto nagusian izango da aurkezpeneko ekitaldia, 19,30etan.

Liburuetako bik –"De la nueva tierra y los inmigrantes" eta "De la inmensa soledad del Hombre"–, Ugaldek Venezuelan idatzitako ipuinak biltzen dituzte, eta Anthropolos argitaletxeak eman ditu argitara. "Amerika eta Euskaldunak" izeneko sailaren barruan.

Iñaki Beti Saez Deustuko Unibertsitateko literatur katedraduna arduratu da liburu honen apailaketaz, eta sarrera moduan Martin Ugalderen lanari buruzko azterketa luze eta sakona egin du gainera, egilearentzat "oso pozgarria" izan dena, "orain artean beste inork ez bait du horrelakorik egin nire obrari buruz".

Venezuelan egin zen idazle

"Gaur eta hemen, azken urteotan idatzi ditudan narrazioak ezagutzen dira, eta Venezuelako gaztelaraz idatzi nuen obra ez da ezaguna", esan digu egileak. "Baina ezin da ulertu nire gaur egungo idazkera Venezuelako idatzitakoa kontutan hartu gabe. Han egin bait nintzen idazle, kazetari lanekin hasita".

Hirugarren liburuak –"Mientras tanto la ciudad fue creciendo"–, Ugaldek Venezuelako erbesteraldian idatzitako ohar biografikoak biltzen ditu. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratu du liburu hau, "La cultura del exilio vasco (1936-1939)" izeneko sailaren barruan.

Ohar bibliografikoez gain, Bolivarri buruzko lan bat eta Venezuelako bertan idatzitako berrogeitalau erreportaiak handi ere biltzen ditu liburu honek.

Kazetari idazle baino lehen

Kazetaritza lanekin ekin zion Martin Ugaldek idazle izateko asmo eta nahiari. "Elkarrizketak eta erreportaiak egin, eta Venezuelako hizkuntza barneratu eta neureganatu nuen pixkana-pixkanaka. Hori izan zen ipuinak idazten hasi aurretik nire ikasbidea".

Ugalderentzat, izan ere, lotura estua dago kazetaritza eta literaturaren artean: "Erreportaia da ipuinetik gertuen dagoen generoa. Irudimena landu behar duzu, zeure iritziak ere azal ditzakezu... aukera asko ematen ditu".

Gaur egun, bi lan ditu esku artean Martin Ugaldek: Manuel Irujoren biografia, eta sormeneko nobela bat. Euskal Herriko kazetaritza ere gertutik jarraitzen du. EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko lehendakari da gaur egun, eta hasieratik izan da egitasmo honen bultzatzaile.